

# Euskal probintzialismoaz

Xabier Zabaltza

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Historiografia akademikoak aitzin-urrats nabarmenak egin ditu azken urteetan euskal nazionalitatearen eraikuntzaren ikerketari dagokionez, baina nortasun probintzialak alde batera utzi izan ditu. Artikulu hau azaltzen saiatzen den bezala, Euskal Herriko historian probintzia, zenbait izenez, eta hari loturiko sentimendu eta ideologiak funtsezkoak izan dira, berriki arte ez baitziren probintziaz gaindiko erakundeak sortu. Gainera, erakunde horiek ez dute inoiz Euskal Herri osoa bildu. Espero izatekoa zenez, *navarrismoa*-ri eman zaio garrantzi berezia, baina beste «ismoak» (*alavesismoa*, *vizcainismoa*, baita *souletinisme*a ere) ahantzi gabe. Azalpenak bilatu nahian, kontu linguistiko, instituzional eta demografikoetan jarri dugu arreta.

GAKO-HITZAK: Euskal lurraldeak · Euskal nortasunak · Ordezkaritza-erakundeak · Foruzaletasuna.

## On Basque provincialism

Academic historiography has made great progress in recent years in the study of the construction of Basque nationality, but, in general, it has neglected provincial identities. As this article attempts to explain, the province, under various denominations, and the sentiments and ideologies associated with it have been central to the history of Basqueland, as it is only recently that supra-provincial institutions have been created, and these have never covered the whole country. As was to be expected, special importance has been given to Navarreseism, but without forgetting other «isms» (Alaveseism, Biscayanism, even Souletinism). In an attempt to seek explanations, we have focused on linguistic, institutional and demographic issues.

KEY WORDS: Basque territories · Basque identities · Representative institutions · «Foralism».

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5541>

*Jasotze-data:* 2025-04-27

*Onartze-data:* 2025-07-02

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Probintzialisismoa Euskal Herriak bere duen zerbait da. Hala ere, oro har, historiografiak berezitasun probintzialean baino euskal nazionalitatearen eraikuntzan erakutsi du interes handiagoa. Artikulu honen bidez, gure asmoa da prozesu hori «deseraiki» eta probintzien garrantzi historikoa aldarrikatzea.

Inor ez dago aurreiritzietatik libre, baina zinez deigarria da Akademian dagoen kontsentsua. Izan ere, gaurko entitate bat, gaztelaniaz *País Vasco* deritzona, ehunka urtez atzera igorri ohi da, nahiz eta, ikuspegi administratibo batetik, duela mende erdia baino gutxiago sortu. Gehienetan, kontzientzia probintziala zerbait kontingente bailitzan tratatu izan da. Joera teleologiko subliminal bat egoten da, berezkoa, ia saihetsezina, ikertzailearen ideologiaren arabera, nortasun «erregionala» edo «nazionala» izanen bailitzan. Gainera, hiru euskal erkidegoetako historia elkarrengandik bereizirik idatzi ohi da. Hori horrela, anitz gauza ezin dira bere osotasunean konprenitu. Salbuespenak badira, jakina. Euskal Herriaren, Espainiaren eta Europaren aldeko ikuspegi foruzale batetik, José Miguel de Azaolak (1972-1976, 1988) nortasun probintzialak nabarmenarazi zituen. Eta Santiago de Pablok (1988a, 1988b, 1991) Arabaz argitaratu dituen lanetan Nafarroa hartu du beti aintzakotzat. Gure ustez, euskal lurralde guztiak batera aztertuko balira, sinergiak sortuko lirateke eta historialariek etekin handiagoa aterako liokete beren lanari.

Coro Rubiok (2003, 153-177. or.) oso kontzeptu erabilgarri bat hedatu du: «patriotismo bikoitza». Mendeetan zehar, ez zen kontraesanik izan «patria txikia»-rekiko (Euskal Herriarekiko) eta «patria handia»-rekiko (Espainia edo Frantziarekiko) atxikimenduen artean. Guk, Rubioz harago, «patriotismo hirukoitza» aztertu nahiko genuke artikulu honetan (kasuan kasuko probintzia-Euskal Herria-Espainia / Frantzia). Euskal probintzia gehienak Erdi Aroan sortu ziren eta ulergarria da nortasun probintzialak oraindik bizirik egotea. 1790ean Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa behin betiko desegin zituzten, Frantziako antzinako probintzia guztiak bezala, eta horregatik sentimendu probintzialak oso ahuldurik daude Ipar Euskal Herrian. Aitzitik, 1833an, Espainiako probintziak antolatuta zituztenean, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako mugak erabat errespetatu ziren, baita haien izenak ere, eta horregatik hegotarren probintzialisismoa sasoiari dago, Nafarroan bereziki. Historian zehar, euskal herritar anitzen nortasuna hiru aldagai horien (eta gehiagoren) arteko joko dialektikoaren ondorioa izan da. Nork eta Euskal Herriko seme batek, Tomás Meabek (1905), esan zuen bezala: «Mi patria empieza en mí y acaba en ninguna parte».

Jadanik aditzera eman denez, Euskal Herriko «lurralde-aferra» garrantzitsuena Nafarroakoa da. Hala ere, *navarrismoa* delakoaz, salbuespenak salbuespen (Blinkhorn, 1974; Payne, 1982, 1984; Olábarri, 1986, 1988; Iriarte, 2000; García-Sanz Marcotegui, Iriarte eta Mikelarena, 2002; García-Sanz Marcotegui, 2012; Elorriaga, 2014) historiografian dauden gabeziak nabari dira. Guk, beste toki batean (Zabaltza, 2019), gaur egungo Nafarroako probintzialisismo *antivasquista* Valentziako erregionalismo antikatalanistarekin alderatu eta Miroslav Hroch txekiar historialariak «mugimendu nazional»-en bilakaeraren eskeman ezarri zituen hiru faseei beste

1. Lan hau Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko IT-1441-22 Ikerketa Taldearen barruan burutu da.

bat gehitu diegu. «Z fasea», non Ipar Irlandako unionismoa ere sartu baitugu, nazionalismo periferikoen kontrako erreakzio bat da, haiek eskatu baina kontrolatzen ez dituzten lurraldeetan gertatu ohi dena, eta estatuko nazionalismoaren aliatu bat ere bai. Valentziar eta nafar anitzen ustezko «antinazionalismo» hori XIX. mendeko probintzialismo eta erregionalismoetatik diferentea da, baita Espainian Trantsizio garaian gauzatu ziren «neo-regionalismo» gehienetatik ere (Núñez Seixas, 2005). «Z fasea» delakoaren ezaugarri nagusia «nazionalismoarekiko» obsesioa izaten da. Borrokatu asmo duen etsaiak bezala, «antinazionalismoak» konnotazio linguistiko garbi bat dauka, Valentzian katalanaren batasunaren kontra jotzen baitu eta Nafarroan euskararen normalizazioari uko egiten baitio.

Euskal Herriko historia instituzional eta linguistikoaren oparotasuna ezaguturik, harrigarriena, eta historiografiak azaltzen saiatu beharko lukeena, ez da Nafarroaren berezitasunaren sendotasuna, Arabarenaren ahultasuna baizik. Bi probintzia horien patuak, arras diferente gertatu direnak, ez dituzte kontu «objektiboek» bakarrik (hizkuntzak, kasu) determinatu, haiekin nahasi diren interes politiko eta ekonomikoek baizik. Lan honetan, erakundeez eta hizkuntzez gain, errealtate demografikoa ere hartuko da aintzakotzat, horrek zenbait portaera ulertzen laguntzen ahal digulako.

## 2. Senideetatik herrialdeetara

Euskal Herriaren berri dugunez geroztik, haren zatiketa administratiboaren berri ere badugu. Erromatarren garaian, barduliarrak, karistiarrak eta autrigoiak gaurko Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian bizi ziren, *Conventus Cluniensis* zelako lurraldean kokatu zituztenak, *Tarraconensis* probintziaren barruan. Baskoiak, gutxi gorabehera gaurko Nafarroan, probintzia bereko *Conventus Cæsaraugustanus* zelakoan. Tarbeliarrak Lapurdiko eta Baxenabarreko bizilagunak ziren eta sibiliteak (ilurondarren adar bat, beharbada), Zuberoakoak, batzuk zein bestek *Novempopulania*-n, Akitanian, beraz.

Serapio Múgica (1914, 192. or.) izan zen erromatarren garaiko gizataldeak eta gaurko euskalkiak aurrenekoz lotu zituen lehenetako bat: baskoiak iparraldeko nafarrera garaiarekin, barduliarrak gipuzkerarekin eta karistiarrak bizkaierarekin. Ñabardurak ñabardura, Múgicari Campión (s.d., 52, 69-70. or.), Menéndez Pidal (1962 [1921], 47-48. or.) eta Caro Baroja (1971 [1949], 28-29. or.) jarraiki zitzaizkion, besteak beste. Egile horien guztien artean balizko lotura hori *idée reçue* bilakatu zen.

I. mendean Pomponio Melak *gens* erabili zuen barduliarrak deskribatzeko. Caro Barojak (1973 [1943], 63-81. or.) Iberiako Penintsulako iparraldeko beste talde protohistoriko anitzi ere aplikatu zien hitza. Juan Carlos de Guerrak (1919, 712. or.), barduliarrak eta beste aipatu gabe, «senitarteko» eman zuen latinezko *gens* hitzaren euskarazko ordain. Guerrari ideia harturik eta bere kasa hobeturik, Xabier Kintanak hau idatzi zuen «senide» hitzaz:

[E]s muy posible que esta palabra fuera utilizada en otros tiempos para designar en vasco a las antiguas *gens* vasconas, comunidades o tribus basadas en la afinidad de sangre o parentesco común; estas *gens* se unieron posteriormente y basaron su afinidad no en la sangre, sino en la lengua (Kintana *et al.*, 1980, 406. or.).

Hala ere, gaurko historiografiak, oro har, antzinako gizataldeen izaera jentilizioa murrizteko joera du. Fernando Wulffek (2001, 391-394. or.), adibidez, idatzirik utzi du *gens* kontzeptuak Erromarako bakarrik balio zuela, ez garai hartako Euskal Herrirako. Juan José Sayas (1998, 120. or.) urrunago joan da. Haren arabera, erromatarrek sortu zuten ustezko *gens* horien artetik garrantzitsuena, baskoiena, hain zuzen ere:

[F]ue la acción política romana la que, englobando en una unidad a grupos humanos con rasgos culturales diversos, y separándolos de otros con los que tenían algunas semejanzas, creó de manera un tanto artificial la etnia de los Vascones, que andando el tiempo irá tomando conciencia de su entidad política.

Etnia berri horretan euskaldunak zein erdaldunak sartu zituzten, baina euskaldun anitz (adibidez, Akitaniakoak) kanpo utzi. Michelénaren hitzez (1984, 12. or.) ideia bera berriro azaltzearren: «[N]i todos los *vascones* eran vascófonos, ni todos los vascófonos eran *vascones*». Hori horrela, Vicente de la Fuente aragoiar historialariak (1817-1889) XII. mendearen hasieran gertaturiko Erriberaren «Errekonkistaz» idatzirik hitz hauek (1884-1886, I, 115-116. or.), arrakasta handi samarra izan dutenak, *wishfull thinking* baizik ez dira:

[L]o notable de entonces fué ver cómo en medio de aquel caos se salvaron los antiguos límites de Vasconia, con tal precisión, como si hubieran tenido un mapa geográfico á la vista, sirviéndoles de luz para ello, por una parte las tradiciones transmitidas por los mozárabes, y segundo, algunos documentos que quizás conservaban y no han llegado hasta nosotros.

Gure aburuz, Alemaniako historiografia erromantikoak *Stämme* edo ustezko germaniar leinuak (bavariarrak, suabiarrak, turingiarrak, saxoiak, frankoak eta frisiarrak) eta gaurko aleman dialektoak (*Mundarten*) uztartzeko eginiko saioek itsutu dituzte «senide» eta euskalkien arteko harremanen aldekoak. Adibidez, Kintana (1975, 201. or.), ustekabean, seguruenik, *Deutsch* ('alemana') eta *deutlich* ('argia, bereizia') lotzen dituen herri-etimologiatik abiatu zen, «euskara» «huts-kara»-tik eratortzeko: 'mintzaira garbia, erraxa, adigarria'. Egia esan, *Stämme* soldaduak errekrutatzeo erakundeak besterik ez ziren. Gerlari bakan batzuk eta haien familiak bakarrik izaten ziren *Stamm* bateko kideak. Gerlari batek bere *Stamm*-etik alde egin zezakeen eta beste bat sortu (Armstrong, 1982, 28. or.). Alegia, *Stamm* eta *Mundart* arteko lotura alegiazkoa da.

Zena zela, IV. mendearen bukaerarako Euskal Herriko antzinako gizataldeak, erromatarrek sortuak edo ez, deseginak zeuden edo, behintzat, desegiteko zorian. Garai hartantxe agertu zen aurrenekoz *Vasconia* latinez. Caro Barojaren (1973 [1943], 131. or.) eta, adierazi bezala, Kintanaren (1975, 195. or.) arabera, koronimoak zentzu linguistikoa zuen, XVI. mendetik aitzina dokumentatzen den «Euskal Herriak» bezala. Berehala, gaurko probintziak azaltzen hasiko dira, ez, baina, gaurko mugekin, jakina: Lapurdi V. mendean, Zuberoa VII. mendean, Araba eta Bizkaia IX. mendean, Nafarroa X. mendean, Gipuzkoa XI. mendean eta Baxenabarre XVI. mendean (Zabaltza, 2020).

Eta oraintxe argitu behar dugu zergatik erabiliko dugun «probintzia» hitza lan honetan. Gernikako Estatutuak, 1979koak, «lurralde historikoak» izendatu zituen Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia, Foruaren Hobekuntzak, 1982koak, Nafarroari «Foru Komunitatea» titulua esleitu zion bitartean. 1978ko Espainiako Konstituzioa, lehen xedapen gehigarrian, laurez ari da, izenik eman gabe, eta «lurralde forudunak» deitu zituen. Hala ere, Antzinako Erregimenekeo diferentziak («erresuma», «jaurerria» eta abar) lausotu zirenean, euskal lurraldeak aipatzeko hitza «probin(t)zia» izan zen, Jean-Martin Hiribarren lapurtarrak 1853an jadanik esanahi horrekin erabilia (Michelena, 1987-2005, XIV, 318. or.). Beraz, ez du inolako zentzu iraingarririk. Bere aldetik, zazpi lurraldeez aritzeko, «herrialde» hitza ere erabiltzen da, agian maizago gaztelaniaz euskaraz baino. Sebastian Mendiburu gipuzkoarrak 1760an sorturiko neologismoa da eta, dagokigun esanahiaren antzeko batez, ETak zabaldu zuen, 1963an antolatu zuen Bigarren Biltzar Nagusiaz geroztik (Michelena, 1987-2005, VIII, 215; Madariaga-ko, 2014, 104-105. or.).

### 3. Herrialdeetatik Euskadira

Antzinateko Erregimenean Espainiako Monarkiako lau lurraldetan eta Frantziako Monarkiako hiruretan bizilagun gehienek, edo anitzek behintzat, euskaraz hitz egiten zuten. Horixe da «Euskal Herria» edo, maiz, pluralean, «euskal herriak» hitz tradizionalaren esanahia. Ez zuen eduki politikorik. Lurralde horietako bakoitzak bere biltzarra zeukan eta ez zegoen ordezkari-tza-erakunde baturik. Egia da 1775etik 1936ra bitarte Konferentzia Politikoak izan zirela, non Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko ahaldunek hartu ohi baitzuten parte, baina erakunde horren egiteko nagusia aholkuak ematea zen, ez arauak eta, are gutxiago, legeak.

Oin Berriko Dekretuak (1707-1716), Ondorengotza Gerraren ondoren Aragoiko Koroako erakundeak ezeztatu zituztenak, erabakigarriak izan ziren Hego Euskal Herriko lurraldeetan foruetan oinarrituriko kontzientzia bereizia sortzeko, orduetik 1876ra bitarte, 160 urtez, beraz, Nafarroak, Bizkaiak, Arabak eta Gipuzkoak Espainiako Monarkian uharte beregain bat osatu zutelako. Aitzitik, Frantzian, 1789an, Iraultza hasi berrikan, probintzia guztietako erakundeak, Baxenabarre, Lapurdi eta Zuberoakoak barne, batera ezeztatu zituzten eta, beraz, hauen berezitasuna ezin izan zen ustezko «eskubide historikoetan» oinarritu. Bidasoaz iparraldean ez dago 160 urteko salbuespenik.

Ipar Euskal Herriak 1790az geroztik eratu du unitate administratibo bat, hori bai, Bearnorekin batean, non gaskoiz mintzatu ohi zen. Haren arrakasta ukaezina bada ere, ikuspegi historiko eta linguistikotik, Pirinio Behereetako departamendua (1969az geroztik, «Pirinio Atlantikoak») berrikuntza ikonoklasta bat izan zen. Bere aldetik, hiru probintziako Euskadiko Autonomia Erkidegoa, 1979an antolatua, ez da Pirinio Atlantikoetako departamendua baino anitzez tradizionalagoa. Azken batean, foruzaletasunak gehiago jotzen zuen probintzialismora erregionalismora edo nazionalismora baino. Ikuspen horretatik, Nafarroako iraupen instituzionala ez da anomalia bat, kontrakoa baizik, hein batean behintzat euskaldunak diren herrialdeen artetik tradizioari eutsi eta unitate administratibo zabalago batean sartu ez den

bakarra izan baita (1833tik 1839ra eta 1872tik 1876ra bitarteko «estatu karlistak» *de facto* Erresuma Zahar gehiena eta Mendebaleko hiru probintzien gehiena bildurik ere).

Euskal nazionalismo politikoaren sortzailea, Sabino Arana (1865-1903), abertzale sutsu bat bezala iragan da historiara, baina momentu batzuetan oso pragmatikoa izan zen. 1898an, Bizkaiko Probintziako diputatua zelarik, haren helburu nagusietako bat *Consejo Regional* bat sortzea izan zen, Hego Euskal Herriko lau diputazioei Espainiako Gobernuarekiko harremanetan laguntza emateko eta lauren intereseko ekintzak iradokitzeke (Arana Goiri, 1898). Behin ere ez zuen euskal gobernu baten antzekorik eskatu. Proiektu hori lehen prozesu autonomikoan (1917-1919) agertu zen aurrenekoz, Kataluniako Mankomunitatea osatu eta gero (Belausteguigoitia, 1918). Bada, baina, Hego Euskal Herriaren eta Hego Kataluniaren artean begibistako diferentzia bat: han probintziak 1833an sortu zirela eta hemen, Erdi Aroan. Alegia: hemen probintzia da tradizionala eta han probintziaz gaindiko entitatea. Lehen prozesu autonomikoak huts egin zuen, probintzialismoagatik, hein handi batean. Garai hartan erakunde partekatuak izendatzeko euskarazko hitzak ere falta ziren. Adibidez, «jaurlaritza» neologismoa ez zen 1934 arte agertu, bigarren prozesu autonomikoan (1931-1936) (Sarasola, 2007, 611. or.). Lehen Euzko Jaurlaritza 1936ko urrian osatu zen, Gerra Zibila hasirik, Araba gehiena eta Gipuzkoa gehiena (eta, jakina, Nafarroa osoa) frankisten eskuetan zeudenean. «Euzkadi» eta «Bizkaia» ia sinonimoak izan ziren Elgetako Estatutua indarrean egon zen zortzi eta erdi hilabete eskasetan, 1936ko urritik 1937ko ekainera bitarte. Horixe da gaurko Euskadiko Autonomia Erkidegoaren aurrekari bakarra, Napoleonek Frantsestean, hau ere gerra-garaian, beraz, sortu zuen Bizkaiko Gobernua (1810-1813) izan ezik, korsikarrak agindurik elkartu baitziren aurrenekoz Mendebaleko hiru probintziak ikuspegi administratibotik. Ustezko beste aurrekari batzuei dagokienez, *Capitanía General de la Provincias Vascongadas* (bere historia malkarrean, 1836tik 1893ra bitarte, zenbaitetan Nafarroa bildu zuena) arlo militarrean soilik aritu zen eta Gasteizko Elizbarrutia (1861etik 1949ra bitarte Mendebaleko hiru probintziak batu zituen), eliz arloan soilik.

## 4. Probintzialismo kasuak

### 4.1. Nafarroa

Hein batean behintzat euskara mintzo den herrialde guztien artetik, Nafarroa da nortasun probintzial nabarmenena daukana. Nafarroa, 1527-1530eko zatiketa arte Baxenabarre eduki zuena, «erresuma» tituluaren jabe izan zen Antzinako Erregimenean eta, beraz, teorian, Gaztelaren eta Frantziaren maila berean zegoen. Erresumako Gorteak 1829 arte bildu ziren. Estamentalak ziren, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiak, Lapurdiko Biltzarra eta Zuberoako Zinbideta ez bezala, baina Baxenabarreko Estatuak eta Zuberoako Korpitz Handia bezala.

1512ko Konkistaz gain, 1841eko Foruak Aldatzeko Legeak (geroko «Lege Hitzartuak») baldintzatu du Nafarroako historia instituzionala. Lege hori, 1877az geroztik, Hitzarmen Ekonomikoaren oinarria izan zen. Arabako, Gipuzkoako

eta Bizkaiko Itun Ekonomikoek, 1878az geroztik indarrean egon direnek (Bizkai-Gipuzkoetan 1937tik 1981era bitarte izan ezik), bestelako jatorri bat dute, Foruak ezeztatzeko 1876ko Legeak utzi zituen zirrikituetatik baitatoz. *Navarristek* nafartasunaren zutabe nagusizat jotzen dute Hitzarmena, baina bategite-prozesu luze baten ondoren, gaur egun Ituna bezalakoa da (Aranburu Urtasun, 2005, 2024).

Berezitasun instituzionala eta errealitate linguistikoa ez dira bat. Nafarroan, antzinako baskoien lurraldean, gutxi gorabehera, bizilagun gehienak euskaldunak izan ziren XIX. mendearen hasiera arte (Mikelarena Peña, 2003), nahiz eta eskualdeen eta klase sozialen artean ezberdintasun handiak egon: Erribera (Erdi Aroan musulmanei konkistatua) ia zeharo erdalduna izan da beti eta, oro har, eremu euskalduneko kalekumeek eta aberatsek ez zuten atxikimendu bortizik euskararekiko. Nafarroa, alde handiaz, euskal probintzia jendetsuena zenez, ez da harrizkoa luzaz Aragoiko Koroan euskal herritar guztiak *navarros* edo *navarras* deituak izatea, Manuel Larramendi gipuzkoarraren (1690-1766) eta Sabino Arana bizkaitarraren aipu arranguratsu banak frogatzen duten bezala (Larramendi, 1969, 4; Arana Goiri, 1897). XIX. mendearen azken laurdenean, Nafarroako Euskarazko Elkargoak (1877-1897), Arturo Campiónek (1854-1937) zuzendurik, euskaltzaletasuna eta foruzaletasuna bultzatu zituen batera (González Ollé, 1997; Nieva, 1999), «patriotismo hirukoitza» ukatu gabe.

1897tik 1936ra bitarte (hots, Gerra Zibila arte eta Nafarroak 1932an prozesu autonomikotik alde egin eta gero) Erresuma Zaharreko ordezkariak, Mendebaleko hiru probintzietakoekin batean, Konferentzia Politikoetan parte hartu zuten (Agirreazkuenaga Zigorraga, 1995, II, 903-1563. or.). Horrek frogatzen du, Eusko Jaurlearitzarik, hots, probintziaz gaindiko erakunderik ez zegoenean, zenbat momentutan, behintzat, diferentzia instituzionalaren oroitzapena ez zela oztopo bat izan lau foru-lurraldeak elkarlanean aritzeko. Horrez gain, 1898tik 1979ra bitarte, (Foru) Kontseilu Administratiboa egon zen Nafarroan, antzinako Gorteen ustezko oinordekoa (Gómez Antón, 1962). Ikusiko dugun bezala, Araban imitatzen saiatu ziren.

XIX. mendea arte, Nafarroa *prima inter pares* izan zen Julio Caro Barojak (1985, 35. or.) hizpide izan zuen *familia mayor vascongada* zelakoan. Euskal Herriko probintzia jendetsuena zelako eta, horrekin batean, gehienbat euskalduna zelako. Baina, mende horretan zehar, Nafarroako Erdialdea zitzu bizian erdaldundu zen eta, gainera, industrializazioaren ondorioz, Bizkaia bihurtu zen probintzia populatuena. Orduantxe sortu zen abertzaletasuna. 1917tik 1919ra bitarteko prozesu autonomikoan, Sobietar Iraultzarekin batean gertatu baitzen, Víctor Pradera politikari tradizionalistak (1873-1936) eta Raimundo García «Garcilaso»-k (1884-1962), *Diario de Navarra*-ko zuzendariak, abertzaletasunaren (eta komunismoaren) beldurra piztu zuten nafarren artean (Jimeno Jurío, 2004 [1977-1978]; Fernández Viguera, 1990). Gaurko ikuspegitik, harrigarria da biak, Nafarroaren Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiarekiko batasunari aurka egiteko, nagusiki irizpide demografiko, politiko eta ekonomikoetan oinarritu zirela, ez baitzuten ezbaian jartzen Erresuma Zaharra gehienbat euskalduna zela, edo izana zela, behintzat. Hona hemen Praderaren hitz batzuk, 1919koak:

Las regiones vascas son iguales. Solo hay entre ellas una diferencia: la del poder de la riqueza, que es el que da la hegemonía. He aquí una de las razones por las cuales me asusta la unión [de Navarra]. Me asusta porque entonces la hegemonía sería de Vizcaya. Y como en Vizcaya ejercen la dominación los nacionalistas resultaría que todos estaríamos sujetos a ellos (Fernández Viguera, 1990, 244. or.).

Belaunaldiz belaunaldi, Nafarroako eliteek euskal elkartasunaren aldarrikapenak, termino kulturaletan bakarrik azaltzen zirenak, egin zitzaizketen, ez baitziren «patriotismo hirukoitza» eta Espainiaren batasuna ezbaian jartzen, ez eta haien hegemonia ekonomiko eta ideologikoa ere. Baina, aurrenekoak historian, XX. mendeaz batera, Bizkaiak Nafarroa gainditu zuen populazioari zegokionez. Gainera, euskal batasunak kutsu politiko astuna hartu zuen, Bizkaian abertzaleek gero eta gehiago zabalago bat osatu zutelako, Berrezarkuntzako sistema ustel eta oligarkikoa arriskuan jarri zuena.

*Navarrismoa*-k Nafarroako patua baldintzatu du azken hamarkadetan, baina ez da ideologia homogeen bat. Adibidez, Rafael Aizpúnek (1889-1981) Errepublikara garaiak probintziatiko estatutuak azken momentua arte sostengatu zuen. Ez hori bakarrik. Unión Navarra haren alderdiak (1933-1936), CEDAren barruan zegoenak, bertako gazteriek, gehienbat, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako antzeko indarrekin elkarlana bultzatzen segitu zuen, Nafarroa prozesu autonomikotik atera eta gero (Virto, 1994, 277-278. or.). Hala ere, ia salbuespenik gabe, *navarristek*, karlistek zein liberalek, frankistekin kolaboratu zuten Gerra Zibilean eta diktaduran. Hitzarmen Ekonomikoa, *navarristen* tresna kuttuna, berri eta hobetu zuen Francok.

Trantsizioan *navarrismoa* lehenik Alianza Foral Navarran (1977-1983) gorpuztu zen. Amadeo Marcok (1900-1987), erreketen kapitaina eta Foru Diputazio frankistako azken lehendakari(orde)ja izan zenak, zuzendu zuen alderdia. Marcok berak aitorturik, Euskal Herria maite zuen: «Yo de Euskal Herria sí, porque mi madre hablaba vasco, pero de Euskadi no» (Lizundia, 2004). AFN 1977ko hauteskunde legegileetara soilik aurkeztu zen. Hautesle errodaren % 6,86 lortu zuen.

Jesús Aizpúnek (1928-1999), Rafaelen semeak, 1979an sortu zuen Unión del Pueblo Navarro. Bertan Espainiako Konstituzioko laugarren xedapen iragankorrenekin ados ez egoteagatik UCDei alde egin zuten batzuek eta AFNren hondarrek egin zuten bat (Barberà, 2009). Aizpún honek ez zuen Euskal Herria maite. 1992ko prentsa artikulua batean argi eta garbi adierazi zuen (Aizpún, 1992). ETAk eta ezker abertzaleak bultzaturik, «Euskal Herria» kutsu politiko bat hartzen hasia zen garai hartan, ordura arte «Euskadi»-k zeukan bera.

Nafarroako Foru Parlamentua 1979an eratu zen, hasiera batean arauak bakarrik emateko eskumenak zituela eta, 1982az geroztik, legeak ematekoak ere bai. Gaur egun UPN da bertan ordezkari gehien duena. Nafarroako eskualde guztietan modu orekatu batean presente dagoen alderdi bakarra da, baina, ikerketak falta badira ere, badirudi azkenaldian eremu euskaldunetan indarra galtzen hasia dela. Bakarrik aurkezturik, 2011ko hauteskundeetan lortu zuen boz gehien, hautesleen errodaren % 22,97. Espainia osoko eskuineko indarrekin baturik, 2007koetan, % 29,50 erdietsi

zuen. Jaime Ignacio del Burgok, Foru Diputaziorako demokratikoki hautetsi zen lehen lehendakariak, zuzendu izan ditu indar horiek (Unión de Centro Democrático, Partido Demócrata Popular, Unión Demócrata Foral eta, azkenik, Partido Popular). Euskal Herri osoan probintzialismo batek ez du inoiz halakorik erdietsi. Boz horiei, 1995etik 2011ra bitarte, Juan Cruz Alli lehendakari ohiak sustaturiko *navarrismo* irekiago bat bultzatu nahi zuen Convergencia de Demócratas Navarros / Nafarroako Demokraten Elkargunearenak gehitu behar zaizkie (errolaren % 12,60 1995ean).

*Navarrismoa*-ren arrakasta ikusirik, abertzaletasuna ere hartaz mozorrotu izan da. José Estornés Lasak (1913-1987) eta José Luis García Falcesek (1920-2013), Euzko Alderdi Jeltzaleko kide ezagunek, Partido Napartarra (1983-2022) eratu zuten. Nabarralde elkarte 2001ean sortu zen, haren kideek «Nabarra» edo «Nafarroa Osoa» deitzen duten lurraldean nafar kontzientzia «berreskuratzeko» asmoz. Bertan Euskal Herria ez ezik inoiz Iruñeko Erresumaren menpe egon ziren eskualdeak ere sartzen dituzte, hala nola Errioxa, Bureba eta Aragoiko iparraldea, baita Gaskoinia ere, hau, egitez, erresuman inoiz izan ez zen arren.

## 4.2. Araba

1280an edo, *Crónica de Alfonso X el Sabio* delakoan, pasarte batek frogatzen du Arabaren izena Euskal Herri osoari egokitu zitzaioela: «Alava, que es desde el río Ebro hasta la gran mar de Bayona» (Echegaray, 1952, 336. or.). Euskal Herriko probintzien artean, bakarrik ez da Gaztelarekin loturik egon Araba adina. X. mendean Fernando Gontzalitz Gaztelako eta Arabako kondea izan zen eta XI. mendeko kronista musulmanek *Alaba wa-l-Quilā*, 'Araba eta Gazteluak', aipatu dute, bi lurraldeak ongi bereizi gabe. Araba beti zazpi probintzien artean erdaldunena izan da. Hori horrela, 1883an, Markinako Koplarien Gudu edo Lore Jokoetan, «Martin Hazpandarra» izengoitipean ezkututzen den lapurtar bertsolari batek adierazi zuen euskal herrialdeak sei bakarrik zirela, Araban euskara galdutzat ematen zuen eta (Altzibar, 1998, 671-672. or.).

Antzinako Erregimenean, Bizkaiko eta Gipuzkoako erakundeen aldean, Arabakoek bazituzten beren berezitasunak, bertan ez baitzen kaparetasun unibertsalik, ez eta korrejidorerik ere. Araban *pase foral* zelakoa ez zen 1703 arte berretsi eta, gainera, bertako Batzar Nagusietan nobleek parte har zezaketen, nahiz eta ermandadeka bozkatu, ez estamentuka (Marichalar eta Manrique, 1868 [1862], 519. or.). 1644ko otsailaren 2ko Errege Dekretuak Mendebaleko hiru probintzietako foruen arteko berdintasuna aldarrikatu zuen, baina hori gehiago izan zen printzipio-adierazpen bat, errealitate bat baino. 1821ean, Hirurteko Liberalean, Espainiako Gorteetako batzorde batek proiektu bat aurkeztu zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa *Provincia Vascongada* bakar batean biltzeko, hiriburua Gasteizen izanen zuela, baina ez zen gauzatu (Burgueño, 1996, 118, 121. or.). Hirurteko batzar nagusiak 1876an desegin zituzten, baina Araban, beste bietan ez bezala, 1909tik 1922ra bitarte, Ermandadeetako Ahaldunen Batza-rrek jardun zuten organo aholku-emaile gisa (De Pablo, 1991, 20, 150-154. or.).

Bigarren Errepublikarekin hasi zen prozesu autonomikoan, Nafarroa izan ezik, Araba izan zen Bizkaia eta Gipuzkoarekin bat egiteko uzturen izan zena. Arabako estatutu proiektu bat (1931) prestatu zen, gehiengo errepublikanoko 21 udalek sostengaturik. José Luis Oriol (1877-1972) oligarka eta buruzagi karlistaren ustez, 1933ko azaroko plebiszituan, ezezko bozak eta abstentzioak baiezko bozak baino gehiago izan zirenez, Arabak Euzkadiko Estatututik kanpo gelditu behar zuen. Arabari bertan parte hartzea eragoztearren, tradizionalistek *Carta Foral* bat aurkeztu zuten 1936ko urtarrilean, 40ko udalek sustaturik. Urte horretako uztaillean, probintzia gehiena kolpisten esku gelditu zen hasieratik, iparraldea zein mendebala izan ezik.

Frankismoan, Arabak, berriro Nafarroak bezala, baina Gipuzkoak eta Bizkaiak ez bezala, Hitzarmen / Itunari eutsi zion. Gainera, 1958tik 1977ra bitarte, Oroitzapenezko Batzarrak Foru Diputazioaren eta udalen arteko elkarlanaz arduratu ziren. Egiatzko Batzar Nagusiak (Bizkai-Gipuzkoetan bezala) ez ziren 1979 arte berrezarri, baina iraupen instituzional luzeago horrek sentimendu partikularista bat indartzen lagundu zion. 1989tik 2005era bitarte, Unidad Alavesa, Pablo Mosquera buru zuela, *alavesismoa*-ren defendatzaile gisa agertu zen (Laburu, 1982). Partido Popularretik bereizirik, UAK 1991n lortu zuen boz gehien. Urte horretan, Gasteizko Udalerako hauteskundeetan, eroldaren % 11,77 irabazi zuen (alderdi bozkatuena izan zen bertan) eta Arabako Batzar Nagusietarako, %10,46 (bigarrena izan zen). *Alavesista* baino gehiago *vitorianista* izatea egotzi bazitzaion ere, Bilborekiko lehia eta biktimismoa gorabehera, hori eztabaidagarria da. UAK beti ukan zituen boz gehiago hiriburuan herrialde osoan baino, baina aldea, proportzioan, ez zen behin ere sobera adierazgarria izan (adibidez, % 3,05 Gasteizen eta % 2,58 Araban 2003an, aurkeztu zen azken urtean). 2002an Arabarako autonomia-estatutugai bat prestatu zuen UAK, Nafarroako Foruaren Hobekuntzaren kopia. Bertan *vascuence* Arabako eremu euskaldunetan bakarrik jotzen da ofizialtzat eta Trebiñu eta Urduña barrendegiak ez dira aipatzen ere (Unidad Alavesa, 2002).

1978an Araba Eusko Kontseilu Nagusiaren barruan gelditu zen eta 1979an, hautesleen eroldaren % 52,90ek Estatutuari buruzko erreferendumean alde bozkatuak, autonomia-erkidego berriaren barruan. Aitzitik, Nafarroa, bietatik kanpo. Arrazoia ez da etnolinguistikoa, euskaldunak gehiago baitziren Nafarroan Araban baino. Kontu historikoak garrantzitsuak dira, jakina, eta Araba, Nafarroa ez bezala, zuzenbidez (ez, gehiena, egitez) Euzkadiko parte izan zen 1936an. Baina demografiak ere badu zeresanik. 1981ean Arabak 257.863 bizilagun zituen, ozta-ozta autonomia aldarrikatzeko masa kritikoa osatzen zutenak (erkidego txikienak, Errioxak, 254.352 bizilagun zituen). Garai hartan Nafarroak 509.002 bizilagun zituen. Bertan ez zen erreferendumik izan.

### 4.3. Bizkaia

Nafarroako Erresuma izan ezik, Bizkaiko Jaurerria euskal lurralderik jendetsuena izan zen Antzinako Erresuman. Aro Berrian Gaztelako Koroan *vizcaino* edo *vizcaina* jentilizioa Euskal Herri osoko bizilagunak izendatzeko erabili zen (Legarda, 1953). Ikusi den bezala, Aragoiko Koroan, esanahi berarekin, *navarro* edo *navarra* hitza izaten zen hizpide.

XIV. mendeaz geroztik, gutxienez, Batzar Nagusiek ordezkatu zuten Jaurerria, Gernikan bildurik. Bizkai «ez-nuklear»-eko lurraldeek, hots, Enkartazioek (non gaztelania baitzen mintzaira nagusia), Orozkok eta Durangaldeak XIX. mendea arte eutsi zieten beren berezko biltzarrei (1806, 1827 eta 1875 arte, hurrenez hurren) (Martínez Rueda, 1995, 87, 181. or.; García Orodea, 1997, 184. or.; Ojanguren, 1999, 159. or.). Beren berezitasun juridikoaz jakitun, bizkaitarrek nortasun probintzial indartsu bat izan dute. «Bizkaitartasunak» ez zion aurka egiten «euskalduntasunari», baina, baliteke, oso berandu arte, zenbait kasutan, Bizkaia, ez Euskal Herria, izan zedin lehen erreferentzia identitarioa. Adibidez, Fidel Sagarmínaga (1830-1894), foruzale intrantsigenteen buruzagiak, antza, euskaraz ez zekienak, suhartasun historizistak iradokirik «nación vizcaína» aldarrikatu zuen, ez «nación vascongada» edo «vasco-navarra» (Sagarmínaga, 1880, xxviii-xxix. or.), bere elkarte «Euskalherria» (1880-1902) deitu bazuen ere. Asko jota, Bizkaiko foruzaleek Hego Euskal Herriko lau herrialdeen arteko konfederazio lauso bat zuten helburu.

Sabino Arana Hego Euskal Herriko foruzaletasun probintzialistaren oinorde bat izan zen. 1892an *Bizkaya por su independencia* izenburua zeukan liburu batek ezagutarazi zuen, ez, adibidez, *Euseria por su independencia* (Arana Goiri, 1892). Aranak antzinako jaurerrirako bakarrik asmatu zuen *ikurriña* (1894) eta «Euzkadi» (1896) neologismoa bera, «Bizkaia»-ri eman zion etimologia sinestezinetik dator: «b(eh)e-Euzko-di-a»-tik, hain zuen ere (Zabaltza, 1997). 1895ean geroko Euzko Alderdi Jeltzaleko Bizkai-Buru-Batzarra sortu zuen (Corcuera Atienza, 2001, 449-493. or.). Gipuzko-Buru-Batzarra 1908an antolatu zen, Araba-Buru-Batzarra eta Napar-Buru-Batzarra 1911n, eta Ipar-Buru-Batzarra 1990ean, denak Sabino hil ondoren (De Pablo eta Mees, 2005, 38, 56, 426. or.).

1923an edo, Luis Aranak (1862-1951), Sabinoren anaiak, ustez abertzaletasunaren «egia» iragarri zionak, Bizkaia gogoan zuela, hauxe adierazi zuen: ««[U]n ex-Estado histórico Vasco puede y debe ejercitar su derecho a separarse cuando por los otros ex-Estados vascos se hollaren las bases y se torcieran los fines de la confederación» (Arana Goiri, 1981 [c.1923], 587. or.). Antiespainolismo militantea gorabehera, Luis Aranaren muturreko «bizkaitarrismoak» badu antzik Adolfo Careagaren (1923-2009) *vizcainismoa*-rekin. Careagak Unidad Vizcaína (1991-1994) alderdia erregistratu zuen, helburu bakarra hauxe zuela: Bizkaia (pentsatzekoa da Urduña Arabako esklabearekin, baina Kantabriako Billaberde enklabea gaberik) Euskadiko Autonomia Erkidegotik ateratzea (González Sáez, 2014). UV ez zen inoiz hauteskundeetara aurkeztu. Unidad Alavesak foruzaletasunaren aldarria egiten bazuen (azken batean, frankismoak berak errespetatu zion Itun Ekonomikoa Arabari), Unidad Vizcaínaren ezaugarri nagusia, edo bakarra, espainolismoa izan zen (Careaga, 1993). *Vizcainismoa*-ren eta bizkaitarrismoaren artean dagoen aldea *navarrismoa*-ren eta nabarrismo edo napartarrismoaren artean dagoen bera da.

Euskarazko izena bizkaieraz izan zuen arren, *vizcainista* edo «bizkaitarra» baino gehiago, *bilbainista* (eta oso pertsonalista) izan zen José María Gorordo EAJko militante eta Bilboko alkate ohiak 1993tik 2003ra bitarte bultzatu zuen Iniciativa Ciudadana Vasca / Euskal Huritarren Egiteoak. Besteak beste, autonomia-erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoak Eusko Legebiltzarrean

populazioaren araberako proportzioan ordezkaturik egotea eta, Gerra Zibilean bezala, Euskadiko hiriburua Bilbo izatea eskatzen zuen alderdi horrek. 1995eko udal-hauteskundeetan eroldaren % 10,24 eta bost zinegotzi lortu zituen Botxoan, hirugarren indarra bihurtu zelarik. Hala ere, Bizkaian, oro har, % 2,12 baizik ez zuen erdietsi (bi ahaldun). 1999rako indargabeturik zegoen: eroldaren % 4,58 Bilbon (bi zinegotzi) eta % 0,84, Bizkaian (ahaldunik ez). Bistan denez, udalerako Gorordori botoa eman zioten milaka bilbotarrek ez zuten Batzar Nagusietarako ICV / EHE bozkatu nahi izan.

Urte batzuetan abertzaletasuna dudatan egon zen Euzko Alderdi Jeltzalea / Aberriren (1921-1930) (kon)federazionismo erradikalaren eta Euzko Abertzale Ekintzaren (1930-2008) unitarismoaren artean. Lehenak, herrialde bakoitzak independentzia aldarrikatzeko balizko eskubidea onartzen zuen. Bigarrenak, euskal probintziekin bukatu nahi zuen (De la Granja, 1986). Autonomia berreskuratu eta gero, tirabirak sortu ziren Euzko Jaurlaritzaren eta Mendebaleko hiru foru-diputazioen artean eskumen-banaketaz. Euzko JEL Batzak (Euzko Alderdi Jeltzaleko sektore maioritarioak 1916tik 1930era bitarte euskaraz izen hori hartu zuen eta) sustaturiko euskal federalismo probintzialaren inguruan nahi izan zuen kontsentsua bilatu Lurralde Historikoei buruzko Legeak (1983), baina Euzko Alkartasuna (1986) sortzeko arrazoietako bat ere izan zen. EA Bildu eta Euskal Herria Bildu koalizioen osagaietako bat izan zen 2011n eta 2012an. Lurralde kontu bat badago EAJren eta (Euskal Herria) Bilduren arteko lehian: lehena Bizkaian da nagusi; bigarrena, Gipuzkoan.

Bizkaiera, berriki arte euskalki mintzatuena izateaz gain, euskara batutik gehien bereizten dena da. Horregatik «vizcainismo (edo bizkaitarrismo) linguistikoak» lerro batzuk merezi ditu. Ez dirudite gaurko euskalkiak VII. edo VIII. mendeak baino lehenagokoak direnik (Igartua eta Zabaltza, 2021, 38. or.). Alegia, bizkaiera ez zen «karistiera». Itxuraz, Martin Osoa Kapanagak (1661ean zenduak) ibili zituen aurrenekoz Bizkaikoak bakarrik diren «doguz» eta «dodaz» adizkiak, bizkaieran «ditugu» eta «ditut» ere badauden arren (Ripalda eta Ochoa de Capanaga, 2008 [1656]). Juan Mateo Zabalak (1777-1840), *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno* (1848) liburuaren egileak zabaldu zituen adizki horiek (Zavala, 1848). Zabala bizkaiera euskalki literario bihurtzen gehien lagundu zuenetako bat izan zen. Resurrección María Azkuek (1864-1951), gazte zela, are gehiago bereizi zuen bizkaiera beste euskalkietatik *Euskal-izkindea* (1891) gramatikan (Azkue, 1891). Azkue lehen euskaltzainburua izan zen (1919-1951). Gaztetako bekatuei uko eginik, gipuzkeratik abiatu eta beste euskalkien ekarpenez aberasturik, euskararen batasunaren aldeko sutsua izan zen gero («gipuzkera osotua», 1934-1935).

Itziar Lakak (1986, 1987a, 1987b, 1987c) «hiperbizkaiera»-ren garapena aztertu du. Aldaera hori hein batean artifiziala da, Azkue gazteaz gain, Pablo Pedro Astarloak (1752-1806), Sabino Aranak eta Manuel Arriandiagak (1876-1947) erabilia edo, maiz, bakarrik teorizatua. Abertzaletasunaren bilakaerarekin loturik egoteagatik, zama astun bat izan zen euskara batzeko. Bestaldetik, Euskaltzaindiaren aurkari garbizaleak, Euskerazaintzak, beste bizkaitar batek, Lino Akesolok (1911-1991), 1978an sortuak, bere burua «Euskeraren Erri Akademia» gisa aurkezten du,

arrakasta gutxiz, egia esan, eta literariotzat jotzen diren lau euskalkiak (bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera) batera sustatzen ditu.

Industrializazioaz iraultza bat gertatu zen Euskal Herriko probintzietako egitura demografikoan. Lehenago, Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeak berdindurik zeuden. Orduz geroztik, populazio gehiena Kantaurikoan bizi izan da. 1797an Bizkaia Euskal Herriko populazioaren % 17,72 egiten zuen; gaur, % 36,21. Bizkaiko datuei Gipuzkoakoak gehitu behar zaizkie: % 16,62 eta % 22,78, hurrenez hurren. Garai berean Nafarroako populazioa % 35,26 izatetik % 20,76 izatera iragan da. Horrek ondorioak izan ditu euskal herritarren nortasunetan eta *navarrismoa*-ren arrakasta azaltzen duen arrazoieta bat da.

#### 4.4. Gipuzkoa

Luis de Camões jenio portugesarren (1997 [1572], 155. or.) lerro ospetsu batean «Gipuzkoak» Euskal Herri osoa esan nahi du. Zalantzarik gabe, Gipuzkoa da foruzaletasunak eta abertzaletasunak irudikaturiko «etnotipo»-ra gehien hurbiltzen den euskal herrialdea. Osorik euskararen domeinuaren barruan dagoen probintzia bakarra da, XIX. mendearen bukaera arte gaskoia itsasaldeko herri batzuetan, Donostiatik Hondarribira, mintzatua izan bazen ere (Múgica, 1923, 11. or.).

Duda gutxi daude, beraz, Gipuzkoa euskal erkidegoko kidea dela. Hala ere, garrantzi historiko bereziko zenbait unetan, *gipuzcoanismoa* ere agertu izan da. Adibidez, 1873an, Espainiako Lehen Errepublikan, Gipuzkoako Diputazioa (Nafarroakoa, Arabakoa eta Bizkaikoa bezala) *Estado Vascongado*-ren kontra azaldu zen, nahiago izan baitzuen Gipuzkoak bere estatua eduki zezan, Espainia federalaren barruan (Urquijo, 2009, 59-60. or.). Edo, 1931n, Bigarren Errepublikan, Juan Machimbarrenak (1892-1977) zuzenduriko Partido Republicano Federal de Guipúzcoa zelakoak Probintziarako estatutu bereizi bat defendatu baitzuen (Orueta, 1934, 375-392. or.). Eta, azkenik, Trantsizioan, Roque Arambarrik (1917-1995), Azkoitiko alkate eta Gorte frankistetako ahalduna izanak, Guipúzcoa Unida alderdia bultzatu zuen 1977an, Estatutuaren kontrakoa eta urte berean Alianza Popularren sartuko zena (Landaberea, 2017, 90-91. or.). 1977ko hauteskunde legegileetan hautesleen eroldaren % 6,18 lortu zuen GUK Gipuzkoan, AFNk Nafarroan baino gutxiago. Gehitzekoa da, gaur egungo probintzialismoaren indarraren adierazgarri, Euskadiko Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru herrialdeen artetik, Gipuzkoa dela, ustez, himno ofiziala daukan bakarra, *Erreberentzia* izenekoa, Joan Ignazio Iztuetak 1826an bildua (Zabaltza eta Sánchez Ekiza, 2024, 624-625. or.).

#### 4.5. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa

Bere txikian, Ipar Euskal Herriko Antzinako Erregimeneko ordezkartza-erakundeak oso oparoak izan ziren: Baxenabarreko Estatu Orokorrak estamentalak ziren, Lapurdiko Biltzarrean nobleziak eta kleroak ezin zuten parte hartu eta Zuberoako Orda Korteak bi biltzar zeuzkan. Aitoren semeek Korpitz Handia osatzen zuten, elizgizonak gutxitan agertzen baitziren bertara, eta Heren Estatuak, Zinbideta (1730 arte). Korpitz Handia eta Zinbideta elkarrengandik bereizirik biltzen ziren (Larrázabal Basáñez, 2004, 309-403. or.).

Lehen esan bezala, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeek 1789an galdu zituzten beren erakundeak. Hurrengo urtean hirurek ikuspegi administratibo batetik existitzeari utzi zioten, Bearnorekin batean, Pirinio Behereetako departamenduan sartu baitzituzten. Departamendu horretako hiriburua Bearnon egon da beti, Nabarregosen hasiera batean eta, berehala, Pauen. Lapurtarren, baxenabartarren eta zuberotarren nortasun probintzialak, indartsuak izan zirenak, erakundeez eta berrehun baino gehiago urtez aitortza administratiboaren txikienaz gabeturik, nortasun euskaldun-frantsesean urtu ziren ia erabat. Hala ere, azaltzen saiatuko garen bezala, oraindik ere, hondar batzuek badiraute.

Preseski berezko erakunderik ez edukitzeagatik, Bidasoaz iparraldeko bereizgarri bakarra mintzaira izan da Iraultzaz geroztik. Haatik, euskararen banaketa ez da inoiz homogenea izan bertan. Baionan gaskoia izan zen berezko hizkuntza, 1177tik 1790era bitarte Lapurditik bereizirik egon zen eta. Angelun eta Miarritzen ere gaskoia zen nagusi, baina beti egon ziren ordezkaturik Biltzarrean. Ahurti eta Gixune, non gaskoia mintzaten baitzen, eta Bardoze, non euskara mintzaten baitzen (hirurak Agaramonten Dukerrian), 1763an sartu ziren Lapurdiko Biltzarrean behin betiko, eta Basusarri, non euskara mintzaten baitzen, 1771n, hots, Biltzarra desagertu baino 18 urte eskas lehenago (Liet, argitaratu gabe, 22, 48-49. or.). Bestaldetik, Bidaxuneren estatus juridikoa, alegia, Baxenabarrekoa zen edo ez, ez zen garbi egon Antzinako Erregimen osoan (Bidaxunen ere gaskoia zen berezko hizkuntza). Ozaraine-Erribareita, Jeztaze esklabea eta, hein batean, Berorize, denak Zuberoan; Burgue-Erreiti, Bastida, Ezkoze esklabea eta Ferreria (gaur egun, Akamarreko auzo bat), Baxenabarren, gaskoiak dira edo izan dira mintzairaz. Aitzitik, Bearnoko hamalau herri (Baretos ibarrean eta Eskiula) euskaldunak dira edo izan dira (Txillardeggi, 1983; Etxegorri, 2012). Alegia, Ipar Euskal Herria bezain txikia den lurralde batean ere ez dira bat etortzen elkarrekin muga historikoak eta linguistikoak.

Euskal Pizkundearen hastapena Lapurdin kokatzen ahal da, 1851n, Anton Abadia-Ürrüstoi mezenasak (1801-1897) finantzaturik, lehen Koplarien Guduak edo Lore Jokoak gertatu zirenean. Lapurditik, Lehen Mundu Gerra arte, beste probintzietara zabalduz joan ziren (Urkizu, 1997; Zabaltza, 2018). Koplarien Guduek euskalkiez gaindiko aldaera literario bat finkatzeko ekarpena hutsaren hurrengoia izan bazen ere, Louis-Lucien Bonaparteren (1813-1891) ortografia zabaltzen eta euskarari oinarrituriko estatus gaindiko euskal nortasuna indartzen lagundu zuten (Zuazo Zelaieta, 1988, 244. or.; Altzibar, 1998). «Zazpiak bat» leloa da sentimendu horren adierazgarri. Donibane Lohizuneko 1892ko Koplarien Guduetan agertu zen. «Irrurac bat» (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), Real Sociedad Bascongada de Amigos del País elkarteak 1766az geroztik zabaldua (Urricelqui Pacho, 2009), eta «Laurac bat» (Nafarroarekin), Junta Provisional Carlista de Navarra y Provincias Vascongadas zelakoak 1846an sortua (Martínez Beloqui, 1983, 464. or., 9. oharra), hein batean politikoak dira, nahiz eta modu anbiguo batean, ez baitzen inoiz zehaztu nolako batasuna proposatzen baitzen Hego Euskal Herriko herrialdeetarako. «Zazpiak bat», ordea, hasiera batean, guztiz kulturalista izan zen, hots, «apolitiko» (Abadia-Ürrüstoi bonapartismotik gertu zegoen), Sabino Arana baino lehen, inork, edo ia inork, ez baitzuten estatu bakar batean Hego Euskal Herria eta Ipar Euskal Herria bildu nahi izan.

Hiru probintzietako auzapezen biltzarra (1994) eta *pays* aitortpena (1997) aurrekari, 2017an Euskal Hirigune Elkargoa sortu zen Akitania Berriko Eskualdearen eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren barruan. Nahiz eta eskumen gutxi ukan, orduantxe aitortu zuen aurrenekoz Frantziak, Iraultzaz geroztik, bere mendeko lurraldean ere badela Euskal Herria. Bi esklabeak, Ezkoze, Baxenabarrerena, eta Jeztaze, Zuberoarena, elkargotik kanpo gelditu ziren eta Gaskoiniaren zein Bearnoren bost herri (Bokale, Samatze, Akamarre, Erango eta Lixoze) elkargoaren barruan, baita Santizpirita eta Doneztebe ere, gaur egun Baionako auzoak, baina hiriarri 1857 arte lotu ez zitzaizkionak.

Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeen artetik, Zuberoak mantendu du gaur arte nortasun nabarmenena. Ia *souletinisme*-rik badagoela esan genezake. Oinarri-oinarrizkoa izanik ere, Zuberoa da Ipar Euskal Herrian onarpen ofiziala jaso duen herrialde bakarra. Izan ere, 1838az geroztik «sindikatu» moduan onetsirik dago legez, bertako herrien larre eta oihan banatugabeez arduratzen baita (Goyhenetxe, 1985, 97, 114. or.), eta 2000tik 2017ra bitarte «herri alkargo» moduan egon zen. Gainera, zuberotarrek (lapurtarrek eta baxenabartarrek ez bezala) badute beren himnoa: *Agur, Xiberua!*, Etxahun-Irurik 1946an ondua (Zabaltza eta Sánchez Ekiza, 2024, 631-632. or.). Badira mendeak pastoralak eta maskaradak antzinako bizkonderrian herriz herri antzetzten direla, herritar guztiek hartzen dutelarik parte haietan. 1978an Sü Azia elkarteak sortu zen Maulen, Euskaltzaindiak euskara baturako emaniko arauak hasiera batean aintzakotzat hartzen ez zituena, zuberera literarioari eusteko asmoz. Gero, gazteek bultzaturik, ibilbidea aldatu eta zuberera euskara batuaren barruan kokatu zuen (Zuazo Zelaieta, 1988, 38. or., 30. oharra).

*Bas-navarrisme*-ari dagokionez, maila akademikoan ia bakarrik iraun du (Les Amis de la Vieille Navarre elkarteak, adibidez, 1962an sortua, gaur egun Terres de Navarre / Nafarroako Lurraldeak). Oro har, baxenabartar eta lapurtar nortasunak elkarretaratze folklorikoetan baizik ez dira agertzen: «Nafarroaren Eguna» 1978az geroztik Baigorri ospatzen da urtero eta «Lapurtarren Biltzarra», Uztaritzen, 1979az geroztik (etenekin).

Iparraldeko herrialdeetako demografia ahula eragozpen bat izan da nazionalismo politiko indartsu bat (eta, zer esanik ez, probintzialismoak) errotzeko. 1800az geroztik Zuberoak bere populazioaren % 41,25 galdu du; Baxenabarrek, % 29,36. Aitzitik, Lapurdik % 374,74 irabazi du, areago bertako itsas hegiak, nagusiki, azken hamarkadetan, Frantziako beste eskualde batzuetatik etorririko turista eta erretirodunetz. Itsasaldearen eta barnealdearen arteko desoreka gero eta handiagoa da eta, horrekin loturik, euskararen beherakada, gero eta latzagoa.

## 5. Ondorioak

Lan honen bidez historiografiaren ahanztura ohargarri bat nabarmenarazten saiatu gara. Euskal Herriko nortasun probintzialen ikerketa konparatuak orain arte eman izan zaiona baino kasu handiagoa behar du. Gure aburuz, konparazio horrek Iparraldetik Hegoaldera eta Ekialdetik Mendebalera izan behar du, baita batera diakronikoa eta sinkronikoa ere, zazpi probintziak bilduz eta historia instituzionala eta linguistikoa uztartuz.

*Navarrismoa*-ren indarra ulergarria da, Nafarroa izan baita entitate administratibo zabalago batean sartu ez den herrialde bakarra. *Labourdinisme*, *bas-navarrisme* eta *souletinisme*-rik ez dago, edo ez dago apenas, 1790az geroztik hiru probintzia horiek ez direlako ofizialki existitu. Erdibidean, *guipuzcoanismoa*-ren, *vizcainismoa* / *bizkaitarrismoa*-ren eta, gehienbat, *alavesismoa*-ren aztarnarik badago. Izan ere, Mendebaleko hiru lurraldeak zenbait abagunetan (1810-1813, 1936-1937 eta 1979az geroztik) erkidego bakar batean baturik egon diren arren, Espainian, Frantzian ez bezala, antzinako probintziak ez ziren desegin 1833an antolaketa administratibo berria abian jarri zenean.

Lurraldeari atxikiriko nortasunen bilakaera ulertzeko, historia instituzionala gorabehera, garrantzi handiko beste faktore bat ere bada: bilakaera demografikoa. Kontu hori gehiago hartu beharko litzateke aintzakotzat *alavesismoa*-ren ahulezia azaltzeko, areago Ipar Euskal Herriko probintzialismoena eta abertzaletasunarena berarena. Nafarroari dagokionez, huraxe izan zen XIX. mendearen azken laurdena arte euskal herrialderik jendetsuena. Euskal elkartasunaren aldarriak, bertako eliteek ere ontzat emanak, testuinguru horretan kokatu behar dira, haien eta, oro har, nafar gehienen ikuspegitik ez baitzen inolako arriskurik Erresuma Zaharrak *prima inter pares* izateari utz ziezaion. Gainera, Euskal Herriaren batasuna termino linguistiko eta kulturaletan ulertzen zen, ez politikoetan, ez baitzen Nafarroa «anexionatu» zezakeen probintziaz gaindiko erakunderik. Industrializazioaz batean, Bizkaiak kendu zion lekua Nafarroari populazioari dagokionez. Gainera, garai horretan abertzaletasuna sortu zen eta, beraz, euskal batasuna gehienbat termino politikoetan aldarrikatu zen. Horrek erreakzioa sortu zuen Nafarroan. Abertzaletasuna, mende luzeetako «patriotismo hirukoitza» ez bezala, gizarte tradizionalaren mehatxu gisa ikusi zen. Hala ere, «Garcilaso», Pradera, Marco eta Rafael Aizpúnen kasuek frogatzen dutenez, abertzaletasunaren kontrako jarrera hori ez zen, nahitaez, Euskal Herriaren kontrakoa. Baina 60ko hamarkadan Gipuzkoako populazioak ere gainditu zuen Nafarroakoa eta, ETArek ekintzak zirela eta, abertzaletasuna eta ezker-muturra berdintzeko joera nagusitu zen zenbait girotan. Hori gutxi izanen ez balitz bezala, errealitate kultural eta linguistiko bat (Euskal Herria) eta proiektu politiko bat (Euskadi) nahasi egin ziren. Horrek erreakzioa areagotu zuen: *navarrismoa*, bereziki 1992az geroztik, ez da «antinazionalista» bakarrik, itxurarik egin gabe *antivasquista* baizik. Nafarroa Bizkai-Gipuzkoen eranskin huts bat bilakatzeko beldurraren adierazpena.

Artikulu xume honetan euskal probintzialismoak eta haien Espainiako, Frantziako eta Euskal Herriko nazionalismoekiko jarrerak aztertzeko abiapuntu bat ezarri nahi izan dugu. Alde bateko zein besteko teleologia gainditu beharra dago: Euskadiko Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea ez zeuden aurretik xedaturik (ezta Euskal Hirigune Elkargoa ere). Euskal Herri osoko historia hobeki ezagutzea helburu, antzinako zazpi probintzien eta gaurko hiru erkidegoen arteko azterketa konparatuak sinergiak sortzen ditu beti eta euskal herritarren nortasun oparoak ulergarriago egiten lagun dezake.

## 6. Bibliografia

- Agirreazkuenaga Zigorruga, Joseba (zuz.) (1995). *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias formadas por los representantes de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*. Bizkaiko Foru Aldundia (bi liburuki).
- Aizpún, Jesús (1992ko urriaren 11). Euskalerrria-Euzkadi. *Diario de Navarra*.
- Altzibar, Xabier (1998). «Zazpiak Bat» gaia XIX. mendean. In *Antoine d'Abbadie (1897-1997), Congrès International* (663-688. or). Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia.
- Arana Goiri, Luis de (1981 [c.1923]). El unitarismo de la Comunidad crea el «separatismo» interior vasco. In Mauro Elizondo, *Sabino Arana, padre de las nacionalidades. Legajo Aranzadi* (II, 580-588. or). La Gran Enciclopedia Vasca.
- Arana Goiri, Sabino (1980 [1892]). Bizkaya por su independencia. In *Obras completas* (I, 107-153. or.). Sendoa.
- Arana Goiri, Sabino de (1897ko agorriaren 15a). Una carta. *Baserritarra*.
- Arana Goiri, Sabino de (1980 [1898]). Proposición de Sabino Arana siendo diputado. In *Obras completas* (III, 2396/1-2396/3 or.). Sendoa.
- Aranburu Urtasun, Mikel (2005). *Provincias Exentas. Convenio-Concierto: Identidad colectiva en la Vasconia peninsular (1969-2005)*. Euskal Herriko Eskubide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeako Fundazioa.
- Aranburu Urtasun, Mikel (2024). *Convenio / Concierto. El sistema financiero y tributario de las Haciendas Forales*. Administrazio Publikoaren Euskal Institutua / Euskal Herriko Eskubide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeako Fundazioa.
- Armstrong, John A. (1982). *Nations before Nationalism*. University of North Carolina Press.
- Azaola, José Miguel de (1972-1976). *Vasconia y su destino*. Revista de Occidente (hiru liburuki).
- Azaola, José Miguel de (1988). *El país vasco*. Instituto de Estudios Económicos.
- Azkue, Resurrección María de (1891). *Euskal-izkindea. Gramática eúskara*. Tipografía de José de Astuy.
- Barberà, Oscar (2009). Los orígenes de la Unión del Pueblo Navarro (1979-1991). *Papers*, 92, 143-169.
- Belausteguigoitia, Ramón de (1918). *Las bases de un gobierno nacional vasco*. Imp., Lit. y Enc. Viuda e Hijos de Grijelmo.
- Blinkhorn, Martin (1974). «The Basque Ulster»: Navarre and the Basque Autonomy Question under the Spanish Second Republic. *The Historical Journal*, XVII (3), 595-613.
- Burgueño, Jesús (1996). *Geografía política de la España constitucional. La división provincial*. Centro de Estudios Constitucionales.
- Camões, Luís de (1997 [1572]). *Os Lusíadas*. Publicações Europa-América.
- Campión, Arturo (s.d.). *Euskariana (décima serie). Orígenes del pueblo euskaldún (iberos, keltas y baskos). Segunda parte. Testimonios de la Geografía y de la Historia clásicas. Tercera parte. Testimonios de Lingüística (primer volumen)*. Editorial Aramburu.
- Careaga, Adolfo (1993). *El reto separatista*. Unidad Vizcaína.
- Caro Baroja, Julio (1971 [1949]). *Los vascos*. Istmo (4).
- Caro Baroja, Julio (1973 [1943]). *Los pueblos del norte de la Península Ibérica (análisis histórico-cultural)*. Txertoa (2).
- Caro Baroja, Julio (1985). *La hora navarra del XVIII (Personas, familias, negocios e ideas)*. Vianako Printzea Erakundea.
- Cassini (s.d.). *Des villages de Cassini aux communes d'aujourd'hui*. <http://cassini.ehess.fr> (azken kontsulta: 2025/04/13).

- Censo (1797). *Censo de la población de España en el año de 1797 executado de orden del Rey en el de 1801*. [https://www.ine.es/prodyser/pubweb/censo\\_godoy/Censo\\_Godoy\\_T1.pdf](https://www.ine.es/prodyser/pubweb/censo_godoy/Censo_Godoy_T1.pdf) (azken kontsulta: 2025/04/13).
- Censo (1826). *Censo de población según los datos publicados por la policía en el año de 1826*. <https://www.ine.es/inebaseweb/pdfDispacher.do?jsessionid=BE4FE00F6E809CE54D7AC1B9C327593C.inebaseweb02?td=26461&ext=.pdf> (azken kontsulta: 2025/04/13).
- Corcuera Atienza, Javier: *La patria de los vascos. Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1976-1903)*. Taurus.
- Datos elecciones (s.d). <https://www.datoselecciones.com/> (azken kontsulta: 2025/04/13).
- Echegaray, Bonifacio de (1952) Origen de la voz «Vizcaya» y ámbito de difusión. *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, VIII, 323-343.
- Elorriaga, Ibai (2014). Nabarrismoaren bilakaera historikoa euskal-nafar batasunaren aurrean. *Kondaira*, 14, 1-83.
- Etxegorri, Philippe (2012). *Biarnoko euskaldunak: historiaren eta hizkuntzen bidegurutzean*. Holguía Galindo.
- Eusko Jaurlaritz (s.d). <https://www.euskadi.eus/ab12aAREWar/resultado/maint> (azken kontsulta: 2025/04/13).
- Fernández Viguera, Silvia (1990). La ideología social y política de Raimundo García «Garcilaso» (1903-1929). *Príncipe de Viana*, 189, 211-261.
- Fuente, Vicente de la (1884-1886). *Obras de D. ... Estudios críticos sobre la historia y el derecho de Aragón*. Imprenta y Fundición de M. Tello (hiru liburuki).
- García Orodea, Felipe Andrés (1997). *Berriz: estudio histórico-artístico*. Bizkaiko Foru Aldundia.
- García-Sanz Marcotegui, Ángel (2012). *La identidad de Navarra. Las razones del navarrismo (1866-1936)*. Nafarroako Gobernua.
- García-Sanz Marcotegui, Ángel, Iriarte, Iñaki, eta Mikelarena, Fernando (2002). *Historia del navarrismo (1841-1936). Sus relaciones con el vasquismo*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Gómez Antón, Francisco (1962). *El Consejo Foral Administrativo de Navarra*. Rialp.
- González Ollé, Fernando (1997). *La Asociación Euskara de Navarra (1877-1897) a través de sus libros de actas*. Newbook Ediciones.
- González Sáez, Juan Manuel (2014). Adolfo Careaga: retrato de un liberal antinacionalista vasco (de la Democracia Cristiana a Unidad Vizcaína). In Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga eta Eduardo José Alonso (argtz.), *Naciones en el Estado-Nación: la formación cultural y política de naciones en la Europa contemporánea (201-210. or.)*. Editorial Base.
- Goyhenetxe, Eukeni (1985). *Historia de Iparralde*. Txertoa.
- Granja, José Luis de la (1986). *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca (1930-1936)*. Siglo XXI / Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Guerra, Juan Carlos de (1919). Lecciones de genealogía y heráldica. In *Primer Congreso de Estudios Vascos (689-714. or.)*. Bilbaina de Artes Gráficas.
- INE (Instituto Nacional de Estadística) (2022). *Cifras de población (censos 1857 a 2011) [dataset]. Versión 1*. Banco de España (ed.). Repositorio institucional del Banco de España. <https://repositorio.bde.es/handle/123456789/23312> (azken kontsulta: 2025/04/13).
- INE (Instituto Nacional de Estadística) (2024). *Censo anual de población 2021-2024*. <https://www.ine.es/dynt3/inebase/es/index.htm?padre=11555&capsel=11529> (azken kontsulta: 2025/04/13).

- INSEE (Institut National de la Statistique et des Études Économiques) (2024). *Historique des populations communales. Recensements de la population 1876-2022*. <https://www.insee.fr/fr/statistiques/3698339> (azken kontsulta: 2025/04/13).
- Iriarte, Iñaki (2000). *Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870-1960)*. Biblioteca Nueva.
- Jimeno Jurío, José María (2004 [1977-1978]). *Navarra, 1917-1919. Reivindicaciones autonómicas y reivindicación foral*. Pamplona / Diario de Noticias.
- Kintana, Xabier (1975). Euskaldunon ethni izenaren etimologiaz. *Fontes Linguæ Vasconum*, VII, 1975, 191-201.
- Kintana, Xabier (1980). *Hiztegia 80. Euskara-espainiera, espainiera-euskara. Vasco-español, español-vasco*. Elkar.
- Laburu, Jon Gotzon (1982). *El orgullo alavés*. Senda.
- Laka, Itziar (1986). Euskal Izkindeako aditza (Hiperbizkaieraren historiaz II). *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 20(3), 705-754.
- Laka, Itziar (1987a). Sabino Arana Goiri eta hiperbizkaiera (Hiperbizkaieraren historiaz III). *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 21(1), 13-40.
- Laka, Itziar (1987b). Bizkaiko aldundiaren euskarazko katedra (Hiperbizkaieraren historiaz I). *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 21(2), 409-424.
- Laka, Itziar (1987c) Manuel Arriandiaga: berrazterketarako oinarriak (Hiperbizkaieraren historiaz IV). *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 21(3), 727-753.
- Landaberea, Eider (2017). La idea de España del centro y la derecha española durante la Transición en el País Vasco: una lectura de la foralidad. *Dictatorships and Democracies. Journal of History and Culture*, 5, 81-101.
- Larramendi, Manuel de (1969). *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea. J. Ignacio Tellechea Idígorasen edizioa [1754an idatzia, 1882an aurrenekoz argitaratua].
- Larrázabal Basáñez, Santiago (2004). *Derecho público de los territorios forales. De los orígenes a la abolición foral*. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- Legarda, Anselmo de (1953). *Lo vizcaíno en la literatura castellana*. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.
- Liet, Christian (argitaratu gabe). *Le Biltzar du Labourd au XVIII siècle*. Bordele: TER-Histoire Moderne, Université de Bordeaux III, 1987-1988.
- Lizundia, José Luis (2004ko martxoaren 27a). Euskal Herria izenaz, argitasun zenbait. *El País*.
- Madariaga-ko Iulen (2014). *Egiari zor*. Erein.
- Marichalar, Amelio, eta Manrique, Cayetano (1868 [1862]). *Historia de la legislación y recitaciones del derecho civil de España. Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava*. Imprenta de los señores Gasset, Loma y Compañía.
- Martínez Beloqui, María Sagrario (1983). Las relaciones entre la Diputación navarra y las Provincias Vascongadas en 1866. In *Noveno Congreso de Estudios Vascos* (463-465). Eusko Ikaskuntza.
- Martínez Rueda, Fernando (1995). *Abellanedako Batzar Nagusiak*. Enkarterrietako Museoa / Bizkaiko Batzar Nagusiak.
- Meabe, Tomás (1905eko ekainaren 17a). Mi patria. *La Lucha de Clases*.
- Menéndez Pidal, Ramón (1962 [1921]). Introducción al estudio de la lingüística vasca. In *En torno a la lengua vasca* (11-57. or.). Espasa-Calpe.
- Michelena, Luis (1984). Los vascos y su nombre. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XXIX(1), 10-29.

- Michelena, Luis (1987-2005). *Diccionario general vasco. Orotariko euskal hiztegia*. Euskaltzaindia / Desclée De Brouwer / Mensajero (hamasei liburuki).
- Mikelarena Peña, Fernando (2003). La evolución demográfica de la población vascoparlante en Navarra entre 1553 y 1936. *Fontes Linguae Vasconum*, 92, 2003, 183-197.
- Múgica, Serapio (1914). El obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 8(2), 185-229.
- Múgica, Serapio (1923). *Los gascones en Guipúzcoa*. Gipuzkoako Aldundia.
- Nafarroako Parlamentua (s.d.). [https://parlamentodenavarra.es/eu/resultados\\_electorales](https://parlamentodenavarra.es/eu/resultados_electorales) (azken kontsulta: 2025/04/13).
- Nieva, José Luis (1999). *La idea euskara de Navarra (1864-1912)*. Sabino Arana Fundazioa / Euskara Kultur Elkargoa.
- Núñez Seixas, Xosé Manoel (2005). Regions, Nations and Nationalities: On the Process of Territorial Identity-Building during Spain's Democratic Transition and Consolidation. In Carlos H. Waisman eta Ra'anan Rein (argtz.), *Spanish and Latin American Transitions to Democracy* (55-79. or.). Sussex Academic Press.
- Ojanguren, Pedromari (1999). *Paseando por Orozko*. Autoedizioa.
- Olábarri, Ignacio (1986). Navarra y el Estatuto Vasco: la decisión de 1932. In *Cuestiones de historia moderna y contemporánea de Navarra* (127-142. or.). Eunsa.
- Olábarri, Ignacio (1988). Notas en torno al problema de la conciencia de la identidad colectiva de los navarros en el siglo XIX. In *Congreso de Historia de Euskal Herria, II Congreso Mundial Vasco* (V, 307-312. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Orueta, José de (1934). *Fueros y autonomía: el proceso del Estatuto Vasco*. Nueva Editorial.
- Pablo, Santiago de (1988a). Navarra y Álava ante el Estatuto Vasco (1931-1936): Dos procesos autonómicos paralelos. *Príncipe de Viana*, XLIX, anejo 10, *Primer Congreso General de Historia de Navarra*, 347-354.
- Pablo, Santiago de (1988b). Navarra y el Estatuto vasco: de la asamblea de Pamplona al Frente Popular (1932-1936). *Príncipe de Viana*, 184, 401-414.
- Pablo, Santiago de (1991). *Los problemas de la Autonomía Vasca en el siglo XX. La actitud alavesa (1917-1979)*. Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea.
- Pablo, Santiago de, eta Mees, Ludger (2005). *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco (1895-2005)*. Crítica.
- Payne, Stanley G. (1982). Navarrismo y españolismo en la política navarra bajo la Segunda República. *Príncipe de Viana*, 166-167, 895-908.
- Payne, Stanley G. (1984). Navarra y el nacionalismo vasco en perspectiva histórica. *Príncipe de Viana*, 171, 101-113.
- Ripalda, Gerónimo de, eta Ochoa de Capanaga, Martín (2008 [1656]). *Exposición breve de la doctrina christiana con el examen de conciencia y acto de contrición, ejercicios cotidianos, significaciones de los ornamentos sagrados y misterios de la misa*. Labayru Fundazioa.
- Rubio Pobes, Coro (2003). *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales*. Biblioteca Nueva.
- Sagarmínaga, Fidel (1880). *Memorias históricas de Vizcaya*. Imp. Lit. y Lib. de Juan E. Delmas.
- Sarasola, Ibon (2007). *Euskal hiztegia*. Elkar.
- Sayas Abengoechea, Juan José (2001). Algunas cuestiones relacionadas con la etnia histórica de los vascos. In Juan Francisco Rodríguez Neila eta Francisco Javier Navarro Santana (argtz.), *Los pueblos prerromanos del norte de Hispania. Una transición como debate histórico* (89-139. or.). Eunsa.

- Txillardegi (=Álvarez Enparantza, José Luis) (1983). Biarno euskaldunaz. In *Huntaz eta hartaz* (49-58. or.). Elkar.
- Unidad Alavesa (2002). *Proyecto de Estatuto alavés*.
- Urkizu, Patri (argtz.) (1997). *Anton Abbadiairen koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma (1851-1897)*. Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia.
- Urquijo, Mikel (2009). 1873: la España Federal a debate. Respuestas desde la «España Foral» y la «España incorporada». In *III Seminari Catalunya-Euskadi. La qüestió catalana i la qüestió basca al debat parlamentari espanyol (1808-2008)* (33-70. or.). Generalitat de Catalunya.
- Urricelqui Pacho, Ignacio Jesús (2009). Irurac bat: uso y transformación en la representación visual del lema bascongado durante el siglo XIX. In Jesús Astigarraga Goenaga, María Victoria López-Cordón Cortezo eta José María Urkia Etxabe (koord.), *Ilustración, ilustraciones* (III, 599-616. or.). Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Zuzendaritza / Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales.
- Virto, Juan Jesús (1994). La derecha navarra en la II República. El partido «Unión Navarra» de Rafael Aizpún. *Estudios de Ciencias Sociales*, VII, 261-279.
- Wulff Alonso, Fernando (2001). Sociedades, economías, culturas. In José Manuel Roldán Hervás eta Fernando Wulff Alonso, *Citerior y Ulterior. Las provincias romanas de Hispania en la era republicana* (347-614. or.). Istmo.
- Zabaltza, Xabier (1997) El significado oculto de la palabra «Euzkadi». *Fontes Linguæ Vasconum*, 74, 77-83.
- Zabaltza, Xabier (2018). Pizkunde: los «renacimientos» de la lengua vasca. *Scripta. Revista Internacional de Literatura i Cultura Medieval i Moderna*, 11, 86-107.
- Zabaltza, Xabier (2019). Towards Hroch's Phase Z: «Anti-Nationalism» in Valencia and Navarre (Spain). *Nations and Nationalism. Journal for the Association for the Study of Ethnicity and Nationalism*, 25(3), 888-909.
- Zabaltza, Xabier (2020). Los nombres de Vasconia y de las provincias vascas. *Fontes Linguæ Vasconum*, 130, 533-560.
- Zabaltza, Xabier, eta Sánchez Ekiza, Karlos (2024). Euskal lurraldeetako himnoak. *Príncipe de Viana*, 289, 611-639.
- Zavala, Juan Mateo de (1848). *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*. Imprenta de Ignacio Ramón Baroja.
- Zuazo Zelaieta, Koldo (1988). *Euskararen batasuna*. Euskal Herriko Unibertsitatea / Euskaltzaindia.

## 7. Eranskinak

### 7.1. Euskal Herriko eta euskal herrialdeetako bilakaera demografikoa (1797/1800-2021)<sup>2</sup>

	1797/1800	1826/1831	1857/1856	1877/1876	1900/1901	1930/1931	1950/1954	1981/1982	2001/1999	2021
Araba	67.523 (% 10,74)	92.807 (% 11,44)	96.398 (% 11,06)	93.538 (% 10,22)	96.385 (% 8,94)	104.176 (% 7,30)	118.012 (% 7,24)	257.863 (% 8,95)	286.387 (% 9,90)	333.485 (% 10,47)
Baxenabarre	43.598 (% 6,93)	54.887 (% 6,77)	52.341 (% 6,01)	47.100 (% 5,15)	43.212 (% 4,01)	38.254 (% 2,68)	33.577 (% 2,06)	28.702 (% 1,00)	27.402 (% 0,95)	30.799 (% 0,97)
Bizkaia	111.436 (% 17,72)	144.875 (% 17,87)	160.579 (% 18,43)	189.954 (% 20,75)	311.361 (% 28,89)	485.205 (% 34,00)	569.188 (% 34,90)	1.189.375 (% 41,30)	1.122.637 (% 38,81)	1.153.635 (% 36,21)
Gipuzkoa	104.491 (% 16,62)	135.838 (% 16,75)	156.493 (% 17,96)	167.207 (% 18,27)	195.850 (% 18,17)	302.329 (% 21,18)	374.040 (% 22,94)	694.731 (% 24,12)	673.563 (% 23,28)	725.508 (% 22,78)
Lapurdi	56.156 (% 8,93)	65.889 (% 8,12)	81.882 (% 9,40)	89.422 (% 9,77)	99.364 (% 9,22)	129.938 (% 9,10)	133.005 (% 8,16)	183.425 (% 6,37)	211.903 (% 7,33)	266.596 (% 8,37)
Nafarroa	221.728 (% 35,26)	288.244 (% 35,54)	297.422 (% 34,13)	304.184 (% 33,23)	307.669 (% 28,55)	345.883 (% 24,23)	382.932 (% 23,48)	509.002 (% 17,67)	555.829 (% 19,21)	662.032 (% 20,76)
Zuberoa	23.893 (% 3,80)	28.440 (% 3,51)	26.316 (% 3,02)	23.979 (% 2,62)	23.762 (% 2,21)	21.399 (% 1,50)	20.084 (% 1,23)	17.165 (% 0,60)	15.040 (% 0,52)	14.038 (% 0,44)
Euskal Herria	628.825 (% 100,00)	810.980 (% 100,00)	871.431 (% 100,00)	915.384 (% 100,00)	1.077.603 (% 100,00)	1.427.184 (% 100,00)	1.630.838 (% 100,00)	2.880.263 (% 100,00)	2.892.761 (% 100,00)	3.186.093 (% 100,00)

2. Bi urte daudenean, lehena Hego Euskal Herrikoa da eta bigarrena, Ipar Euskal Herrikoa. Iturriak: Hego Euskal Herriako, Censo (1797), Censo (1826), INE (2022) eta INE (2024); Ipar Euskal Herriako, guk prestatutik, Cassini-tik (s.d.) eta INSEEtik (2024) abiatutik. Baxenabarren Ezkoze sartu da, baina Akamarre, Erango eta Samatze ez. Lapurdin Bokale ez da sartu. Zuberoan Jeztaze sartu da, baina Eskiula eta Lixoze ez.

## 7.2. Guipúzcoa Unida-ren emaitzak (1977)<sup>3</sup>

	1977
Bozak	27.048
Errolda	437.592
Ehunekoa	% 6,18
Eserlekuak	0/7

## 7.3. Alianza Foral Navarra-ren emaitzak (1977)<sup>4</sup>

	1977
Bozak	21.900
Errolda	319.222
Ehunekoa	% 6,86
Eserlekuak	0/5

---

3. 1977ko ekainaren 15eko Diputatuen Kongresurako hauteskundeak. Iturria: Datos elecciones (s.d.). Ehunekoak guk prestatuak dira.

4. 1977ko ekainaren 15eko Diputatuen Kongresurako hauteskundeak. Iturria: Datos elecciones (s.d.). Ehunekoak guk prestatuak dira.

#### 7.4. Unión del Pueblo Navarro-ren emaitzak (1979-2023)<sup>5</sup>

	1979	1983	1987	1991	1995	1999	2003	2007	2011	2015	2019	2023
Bozak	40.764	62.072	69.419	96.005	93.163	125.497	127.460	139.132	111.474	92.705	127.346	92.392
Errolda	365.080	379.692	393.326	414.913	437.797	461.729	464.826	471.653	485.386	501.267	485.405	518.998
Ehunekoa	% 11,17	% 16,35	% 17,65	% 23,14	% 21,28	% 27,18	% 27,42	% 29,50	% 22,97	% 18,49	% 26,23	% 17,80
Eserlekuak	13/70	13/50	14/50	20/50	17/50	22/50	23/50	22/50	19/50	15/50	20/50	15/50

<sup>5</sup> Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak. 2019an UPNk Navarra Suma izeneko koalizioa sortu zuen Partido Popular eta Ciudadanos-ekin. Iturria: Nafarroako Parlamentua (s.d). Ehunekoak guk prestatuak dira.

## 7.5. Unidad Alavesa-ren emaitzak (1991-2003)<sup>6</sup>

	1991	1995	1999	2003
Bozak	22.342	23.442	9.448	6.373
Errolda	213.687	229.873	243.388	246.700
Ehunekoa	% 10,46	% 10,20	% 3,88	% 2,58
Eserlekuak	11/51	9/51	2/51	1/51

## 7.6. Iniciativa Ciudadana Vasca / Euskal Huritarren Egitekoak alderdiaren emaitzak (1995-1999)<sup>7</sup>

	1995	1999
Bozak	20.383	8.243
Errolda	961.246	977.090
Ehunekoa	% 2,12	% 0,84
Eserlekuak	2/51	0/51

## 7.7. Convergencia de Demócratas de Navarra / Nafarroako Demokratik Elkargunearen emaitzak (1995-2011)<sup>8</sup>

	1995	1999	2003	2007	2011
Bozak	55.153	20.821	23.516	14.412	4.654
Errolda	437.797	461.729	464.826	471.653	485.386
Ehunekoa	% 12,60	% 4,51	% 5,06	% 3,06	% 0,96
Eserlekuak	10/50	3/50	4/50	2/50	0/50

6. Arabako Batzar Nagusietarako hauteskondeak. Iturria: Eusko Jaurlaritza (s.d.). Ehunekoak guk prestatuak dira.

7. Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskondeak. Iturria: Eusko Jaurlaritza (s.d.). Ehunekoak guk prestatuak dira.

8. Nafarroako Parlamenturako hauteskondeak. Iturria: Nafarroako Parlamentua (s.d.). Ehunekoak guk prestatuak dira.

